

## KARATULA

### BIOHONDAKINA TRATATZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA ARAUTU BEHAR DUEN ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA

#### 1.-Entitate kontratatzailea eta Kontratazio Organoa

- Entitate kontratatzailea : Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa, SAU (GHK).
- Kontratazio Organoa: GHK-ko Administrazio Kontseilua.

#### 2. GHKren kontratatzailearen profilerako sarbidea:

Entitatearen webgunearen bidez: <https://www.ghk.eus>

#### 3. Lizitazio iragarkien argitalpen kostua:

Ez

#### 4. Dokumentazioaren onarpenerako non eta noiz aurkeztu:

- Dokumentazioa aurkezteko lekua: GHKren bulegoak (Ibaiondo industrialdea, 27, 3; Orbeagoz eraikina; 20120 Hernani).
- Dokumentazioa aurkezteko epea: 2015eko EKAINAREN 23a, 13:00AK ARTE.

#### 5. Helburua:

Kontratuaren xedea BIOHONDAKINA TRATATZEKO ZERBITZUA kontratatzea da.

#### 6. Kontratatze teknika:

Publizitate bidezko prozedura negoziatua.

#### 7. Kontratuaren iraupena.


Zerbitzuaren iraupena SEI HILABETEKOA izango da, gutxi gorabehera, formalizatzen den egunetik aurrera zenbatuta.

#### 8. Kontratuaren balio zenbatetsia

Gastuaren gehieneko muga 199.999 eurokoa da (BEZa barne).

**BIOHONDAKINA TRATATZEKO ZERBITZUAREN  
KONTRATUA ARAUTZEN DUEN  
ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN  
AGIRIA**

AURKIBIDEA

Idazkaririk,  


<b>SARRERA</b> .....	- 5 -
<b>I. KAPITULUA.- KONTRATUAREN EDUKIA</b> .....	- 5 -
1 KONTRATUAREN XEDEA.....	- 5 -
2 GAUZATZEKO EPEA.....	- 6 -
3 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA.....	- 6 -
4 ORDAINTZEKO MODUA.....	- 6 -
5 PREZIOAK BERRIKUSTEA.....	- 7 -
6 KONTRATU AGIRIAK ETA KONTRAESAN KLAUSULA OROKORRA.....	- 7 -
7 KONTRATZAILEAREN PROFILA..... Errorea! Laster-marka definitu gabe.	
8 PUBLIZITATEA..... Errorea! Laster-marka definitu gabe.	
9 BERMEAK..... Errorea! Laster-marka definitu gabe.	
10 KONTRATUA GAUZATZEA.....	- 8 -
11 KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA GAUZATU BITARTEAN HIRUGARRENEI ERAGINDAKO KALTEENGATIK.....	- 8 -
12 KONTRATUA ALDATZEA.....	- 8 -
13 KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZIOIAK.....	- 9 -
14 GHK-REN PRERROGATIBAK.....	- 9 -
<b>II. KAPITULUA-KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA</b> .....	- 9 -
15 ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA.....	- 9 -
16 KONTRATATZEKO GAITASUNA.....	- 9 -
17 AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA.....	- 9 -
18 AGIRIEN ESKAKIZUNAK.....	- 10 -
19 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.....	- 11 -
20 AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.....	- 15 -
21 PROPOSAMEN NEURRIZ KANPOKOAK EDO AUSARTEGIAK.....	- 16 -
22 KONTRATAZIO MAHAIA.....	- 17 -
23 ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA.....	- 17 -
23.1 Eskaintzen sailkapena.....	- 17 -
23.2 Esleipena.....	- 17 -
24 KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA GASTUAK.....	- 18 -
<b>III. KAPITULUA- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA</b> ....	- 19 -
25 KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA.....	- 19 -

26	DATU PERTSONALEN BABESA .....	- 19 -
27	JURISDIKZIO ESKUDUNA.....	- 20 -
I.	ERANSKINA- PROPOSAMENAK ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA .....	- 21 -
II.	ERANSKINA II ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN EREDUA.....	- 22 -
III.	ERANSKINA III-BALIABIDEEN ADIERAZPEN EREDUA.....	- 23 -
IV.	ERANSKINA IV PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA .....	- 24 -
V.	ERANSKINA V. BERMEAREN EREDUA.....	- 25 -

**ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK**

**2015 EKA. 11**


..... (e)an onartua  
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 EKA.  
JUN. 2



**GHK**  
Gipuzkoako  
Hondakinen  
Kudeaketa

Idazkariak,  




## SARRERA

Honako Administrazio Baldintza Berezien Agiriak (aurrerantzean ABBA) helburutzat du hondakinen gaikako bilketako zati organikoaren biohondakina tratatzeko zerbitzua kontratatzekeko administrazio baldintzak finkatzea.

Biohondakina, gaur egun, hiru jatorritakoa izan daiteke:

- etxe nahiz saltokietan atez ate egindako gaikako bilketa,
- sortzaile handietan atez ate egindako gaikako bilketa, eta
- kalean jarritako bosgarren edukiontzi giltzadunen bidez egindako gaikako bilketa.

Biohondakinaren tratamendua Lapatxen egiten da (Azpeitia), GHKren konpostatze plantan. Era berean, biohondakinaren tratamendua gaur egun kanpoko beste planta batzuetan ere egiten da, biohondakina tratatzeko eta konposta eskuratzeko 2013. urtean formalizatutako Esparru Akordioaren bidez, eta hala, hortik eratorritako hirugarren kontratua izenpetu da 2015eko apirilean.

Une honetan Epeleko konpostatze planta (Bergara) eraikuntza fasean dago. Aurreikusitakoaren arabera, azpiegitura hori 2015eko udan hasiko da funtzionatzen, eta orduan, biohondakina bertara eramango da tratatzeko, eta arrazoi horregatik honako kontratua betearazteko epea sei hilabete ingurukoa izango dela kalkulatu da, epe horretan, zenbatespenaren arabera, 5.500 tona biohondakin tratatu beharko direlarik.

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa, **GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETA SAU** (aurrerantzean GHK) pertsona bakarreko sozietatearen bidez, hiri hondakinen tratamendua eta deuseztapena gauzatzeko eskumendun erakundea da, eta hein horretan, lizitazioa bidezkoa da.

## I. KAPITULUA-KONTRATUAREN EDUKIA

### **1 KONTRATUAREN XEDEA**

Honako kontratuaren xedea BIOHONDAKINA TRATATZEKO ZERBITZUA da.

Baldintza Teknikoen Agiriko (aurrerantzean, BTA) 2. klausulak zehazten duen moduan, prozesu aerobikoak (konpostatzea) edo anaerobikoak (biometanizazioa) erabillita azken helburuan 5.500 tona biohondakin kudeatzea da lizitazio honen irismena.

Hala, tratatu beharreko gaia gaika bildutako hondakin organikoaren zatiko biohondakina izango da. Zehazki, biohondakina gaur egun hiru jatorritakoa da:

- etxeetan eta saltokietan atez ate egindako gaikako bilketa,
- sortzaile handietan atez ate egindako gaikako bilketa, eta
- kalean jarritako bosgarren edukiontzi giltzadunen bidez egindako gaikako bilketa.

## 2 GAUZATZEKO EPEA

Zerbitzuak gutxi gorabehera SEI HILABETeko iraupena izatea aurreikusita dago, honako kontratua izenpetzen den unetik zenbatzen hasita, epe horretan aurreikusten baita burutuko dela zenbatetsitako 5.500 tona biohondakinen kudeaketa.

## 3 LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Honako kontratuaren lizitaziorako oinarrizko aurrekontua **EHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI MILA BEDERATZIEHUN ETA LAUROGEITA HEMERETZI EUROan (199.999 €)** finkatu da (BEZik gabe).

Kontratuaren prezioa esleipendunak egindako eskaintza ekonomikotik eratorritakoa izango da. Nolanahi ere, kontratuaren prezioak ezin izango du gainditu lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, BEZik gabe.

**Lizitatuzaileek aintzat hartu beharreko lizitazioaren oinarrizko prezioa gehienez ere hauxe izango da: 36 euro tratatutako biohondakin tonako.**

Gehieneko lizitazio prezioa gainditzen duen proposamenik ez da onartuko.

Kontratuaren prezioaren barnekotzat hartuko dira aplikatu beharreko zerga, tasa eta kanon oro, baita kontratistari honako agirian eta gainerako kontratu agirietan aurreikusitako betebeharrak betetzetik sortzen zaizkion gainerako gastuak ere.

Lizitatuzaileek garraiatutako tonako eskaintzen duten prezioaren barnean sartuko dituzte gastu kontzeptu guztiak eta mozkin industrialak, BEZa izan ezik, hori beste partida bereizi batean adierazi beharrekoa izango baita.

## 4 ORDAINTZEKO MODUA

Prezioaren ordainketa hileroko egingo da, tratatutako biohondakin tona kopuruaren arabera.

Esleipendunak hilabete bakoitzaren itxieran, eta hurrengo hileko aurreneko zazpi lanegunen barruan, bidaliko du bai faktura eta bai GHK-k eskatutako protokoloari jarraituz egindako zerbitzuari buruzko gainerako dokumentazio xehatua. Kontuan hartu beharreko tonak helburuko instalazioko sarrerako baskulako tiketari bidez egiaztatutakoak izango dira, eta esleipendunak fakturari erantsi beharko dizkio egiaztagiriri horiek.

Ordainketa transferentzia bidez egingo da, igorritako faktura GHK-k ontzat eman eta 60 eguneko epean.



## 5 PREZIOAK BERRIKUSTEA

Kontratistak galdu-gordean beteko du kontratua, eta prezioak berrikusteko aukerarik ez da egongo.

## 6 KONTRATU AGIRIAK ETA KONTRAESANEI BURUZKO KLAUSULA OROKORRA

Kontratu izaera izango dute, eta hein horretan, aldeek nahitaez bete beharrekoak izango dira jarraian adierazitako agiriak eta horien eranskinak:

1. Honako Administrazio Baldintza Berezien Agiria.
2. Baldintza Tekniko Berezien Agiria, Administrazio Baldintza Berezien Agiriak dioenarekin kontraesanik ez badago, betiere.
3. Kontratua formalizatzen duen agiria eta horren ostean kontratuaren garapenerako izenpetzen diren agiriak.
4. Esleipendunak aurkeztutako eskaintza.

Esleipendunak agiri horiek guztiak izenpetu beharko ditu kontratua formalizatzeko ekitaldian bertan, horiekin ados dagoela adierazteko.

Agirion edukien arteko kontraesanik izanez gero, interpretatzeko aintzat hartuko da honako klausulan zerrendatzeko erabili den lehentasun hurrenkera, eta hein horretan, horietako bakoitzak lehentasuna izango du ondoz ondo jarraitzen dionaren aldean.

## 7 KONTRATATZAILEAREN PROFILA

GHKren Interneteko atarian kontratatzailearen profila eskuragarri izango dute lizitatzailleek, kontratuari lotutako jarduerari buruzko informazioaren gardentasuna eta sarbide publikoa ziurtatzeko, eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginak (aurrerantzean, SPKLTB) ezarritako kasuetan beste publizitate bide batzuen erabileraren galerarik gabe. Zehazki, honako helbide honetan: <http://www.ghk.eus>.

## 8 PUBLIZITATEA

Kontratatzailearen profilean argitaratuko dira honako lizitazioa eta kontratuaren esleipena.

## 9 BERMEAK

Kontratua formalizatu aurretik, esleipendunak behin betiko bermea eratu beharko du kontratuaren balio zenbatetsiaren %5aren baliokidea, BEZa aintzat hartu gabe.

Bermea eratzeko SPKLTBko 96. artikuluan adierazitako edozein bide erabil daiteke. Lege hori, hain zuzen, berariaz aplikatu beharrekotzat jotzen da gai honen ondorioetarako.

Abal moduan eratuz gero, honako agirian gaineratutako **V. eranskin**eko ereduarekin bat etorriko da.

Bermea itzuli edo ezereztu egingo da behin kontratuaren indarraldia amaitu eta bera behar bezala betetakoan.

Era berean, itzuli edo ezereztu egingo da bermea, kontratua suntsiarazten bada kontratistari leporatzekoa ez den arrazoi bategatik.

Kontratistari eska dakizkiokeen zigor edo kalte-ordainak bermearen bidez gauzatzen badira, kontratistak berriro jarri beharko du bermeari dagokion zenbatekoa edo lehendik jarritakoa handitu, GHK-k adierazitako epean. Hori egin ezean, kontratua suntsitzeko kausetan eroriko da.

Honako baldintza honetan aurreikusi gabekoei dagokienez, SPKLTBko 95. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako aplikatu beharrekotzat jotzen da berariaz.

## 10 KONTRATUA GAUZATZEA

Administrazio baldintzetan aurreikusitako epean gauzatuko da kontratua, formalizatzen den unetik zenbatzen hasita.

Honako agirian eta baldintza teknikoan agirian bildutako xedapenei estu-estu lotuta gauzatu behar da kontratua, eta kontratuaren interpretazio teknikoari buruz haren arduradunak kontratistari emandako jarraibideekin bat etorrita.

## 11 KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA, KONTRATUA GAUZATZEAN HIRUGARREN BATI ERAGINDAKO KALTEENGATIK

Zerbitzua gauzatzen den bitartean, kontratista izango da bere konturako langileen egintza, ez-egite edo zabarkeriaren ondorioz, edo zerbitzua gauzatzean izandako antolaketa, babes edo seinaleztapen eskasegiaren ondorioz, beste pertsona, jabetza edo zerbitzu, publiko nahiz pribaturi, eragindako balizko kalte eta galeren erantzulea.

## 12 KONTRATUA ALDATZEA

GHK-k kontratua aldatu ahal izango du interes publikoko arrazoiengatik, SPKLTBko 107. artikuluan aurreikusitako gorabeheraren bat gertatzen bada, betiere horrekin ez badira aldatzen lizitazioaren eta esleipenaren baldintza funtsezkoak.

Gisa horretako balizko aldaketak bete beharrekoak izango dira kontratistarentzat.



*(Handwritten signature)*  
Idazkariak,

### 13 KONTRATUA SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK

Zerbitzu kontratua suntsiarazteko arrazoitzat hartzen dira SPKLTBko 223. eta 308. artikuluetan ezarritakoak.

### 14 GHK-REN PRERROGATIBAK

GHKri dagozkio kontratua interpretatu, betetzean sor daitezkeen zalantzak ebatzi, interes publikoko arrazoiengatik aldatu, suntsiaraztea erabaki eta horren eraginak zehazteko prerrogatibak, betiere Sektore Publikoko Kontratuen Legeko testu bateginean eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araubide Orokorrean (HAKLAO) ezarritako mugak, baldintzak eta ondorioak aintzat hartuz.

## II. KAPITULUA.- KONTRATUA ESLEITZEKO PROZEDURA ETA MODUA

### 15 ESLEIPEN PROZEDURA ETA MODUA

Honako kontratua esleitzeko publizitate bidezko prozedura negoziatua erabiliko da, eta prozedura arruntaren bidez izapidetuko dira, bai Kontratazio Barne Jarraibideak eta bai SPKLTBko 169. artikulutik 178.era ezarritakoak betez.

### 16 KONTRATATZEKO GAITASUNA

Kontratazio prozedura honetan parte hartu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasun osoa badute, kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko eta profesionala egiaztatzen badute eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bategineko 60. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekuren batek eragiten ez badie. Kaudimena 21. klausulako f.1 eta f.2 hizkietan ezarritako bideetatik egiaztatu eta ebaluatuko da.

Era berean, beren izenean jardun ahal izango dute, edo baimendutako ordezkari baten bidez, zeregin horretarako ahalorde askietsia emanda. Pertsona juridiko baten ordezkari izan horren kideren bat aurkeztuz gero, agiri bidez egiaztatu beharko da horretarako ahalmena duela. Kasu batean zein bestean, ordezkariaren gain ere eragina izango dute aipatutako kontratatzeke ezintasunek.

Enpresaburuek kontratu honen xedeko jardura edo zerbitzua gauzatzeko eskakizun den gaitasun enpresarial edo profesionala ere izan beharko dute, hala badagokio.

### 17 AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

1. Proposamenak GHK-k Hernanin duen bulegoan aurkeztuko dira (Ibaiondo industrialdea, 27 - 3. solairua), **2015EKO EKAINAREN 23ko ordu bata (13:00) baino lehen.**

Kontratazio honen espedientea ikusgai izango da GHKren Hernaniko bulegoan (Ibaiondo industrialdea, 27-3), 08:00etatik 15:00etara, iragarki hau GHKren kontratzailearen profilean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera lanegun guztietan, proposamenak aurkezteko epea amaitu arte.

2. Lizitazio hau kontratazio organoaren kontratzailearen profilean iragarriko da. Webgune edo atari informatiko honen bitartez sar daiteke bertara: [www.ghk.eus](http://www.ghk.eus). Hor bertan eskuragarriak izango dira administrazio baldintzen agiria eta baldintza teknikoaren agiria.
3. Dokumentazio postaz bidaltzen bada, enpresaburuak egiaztatu egin beharko du zein egunetan eta zein ordutan egin duen posta bulegoan bidalketa, eta egun berean kontratazio organoari telefonoz, telex edo fax bidez jakinaraziko dio eskaintza bidali duela. Iragarkian dokumentazioa aurkezteko adierazitako **epea amaitu aurretik egin beharrekoa da bai dokumentazioaren bidalketa eta bai kontratazio organoari bidalketaren jakinarazpena.**
  - Eskaintza aurkeztu izanaren jakinarazpena posta elektronikoz egiteko aukera ere badago, baina jakinarazpen hori balekotzat joko da soil-soilik moduren batean ziurtatuta utziz gero bai mezuaren bidalketa eta bai harrera, horien datak, komunikazioen eduki osoa eta bidaltzailea eta hartzailea fidagarritasun osoz identifikatzeko moduan. Halakoetan, kopia inprimatu bat eskuratu, erregistratu eta espedientean gaineratuko da.
  - Bi eskakizun horiek betetzen ez badira, iragarkian adierazitako epea eta ordua igaro eta gero GHK-k jasotzen duen proposamenik ez da onartuko. Eta nolahi ere, aipatutako egun horretatik hamar (10) egun natural igarotzen badira dokumentaziorik jaso gabe, orduan ez da inolaz ere onartuko, HAKLAOko 80.4 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
4. Parte-hartze eskaera kontratazio organoak adierazitako bulegoetan aurkezten bada, honek parte-hartze eskaera erregistratu egingo du, eta kopia zigilatua emango dio lizitatzailerari, aurkeztu izanaren ziurtagiritzat, bertan agertuko baita haren izena, kontratuaren xedearn izendapena, eta proposamena zein egun eta zein ordutan aurkeztu den, **I. eranskin**ean azaltzen den ereduari jarraituz.

## 18 DOKUMENTAZIOAREN ESKAKIZUNAK

Lizitzaileek aurkeztutako dokumentazioak honako eskakizun eta baldintza hauek bete behar ditu:

1. Proposamena aurkezteak berarekin dakar lizitatzailerak baldintzarik gabe onartzea honako agiriko eta baldintza teknikoaren agiriko xedapen guztiak, salbuespenik gabe, baita gainerako kontratu agiriak ere, eta erantzukizunpeko adierazpena egitea aurkeztutako datu guztien zehaztasun eta egiazkotasunaz eta honako baldintza agiri honen xedeko kontrataziorako baldintza guzti-guztiak betetzen dituela ziurtatuz.



2. Lizitatzailerik bakoitzak ezin izango du proposamen bakar bat baino aurkeztu, eta aldaerarik ez da onartuko. Era berean, banaka aurkeztu badira, ezin dute beste batzuekin batera aldi baterako elkarte baten proposamena izenpetu, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan agertu. Arau horiek urratuz gero, berak izenpetutako proposamen guztiak baztertu eta bakar bat ere ez onartzea ekarriko du.

3. Aurkeztutako dokumentazioa Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako batean idatzita egon beharko da (euskaraz edo gaztelaniaz). Beste hizkuntzaren batean idatzita balego, dagokion itzulpen ofizialarekin batera aurkeztu beharko da.

4. Informazio guztia paperean inprimatuta eta euskarri informatikoan aurkeztu behar da (Word, Presto 8.8, Excel fitxategiak eta mpp, PDF, dwg eta abarrak), honako agirian adierazitako baldintzak betez, hala dagokionean. Bi euskarrietan aurkeztutako datu edo informazioak bat ez badatoz, paperean inprimatutako dokumentazioan bildutakoak izango du lehentasuna.

Eskaintzak makinan idatzita edo beste nolabaiteko inprimatze mekaniko edo informatikoren bidez aurkeztuko dira, eta ez da onartuko eskuz idatzitako agiririk, ezta eskaintzak baloratzeko baldintzak argi eta garbi ulertzea eragozten duten hutsune, akats edo zuzenketak dituztenik ere. Era berean, ez dira onartuko HAKLAOren 84. artikuluan aipatzen diren kasuekin bat datozen proposamenak.

Eskaintza ekonomikoa, zehazki, honako agirian agertzen den dokumentu informatikoan aurkeztu beharko da, horren formatua ezin da aldatu.

5. HAKLAOren 84. artikuluan ezarritako kasuekin bat datorren proposamenik ez da onartuko, eta hein horretan, baztertu egingo dira aztertu eta onartutako dokumentazioarekin ondo egokitzen ez diren proposamenak, agirietan ezarritako eredu funtsean aldatzen dutenak, zenbatekoan akats agerikoa dutenak edo bideraezin bihurtzen duten akats edo funsgabetasun bat dutenak lizitatzailerik berak onartuta.

6. Lizitatzaileraren konturakoak izango dira prozedurara aurkeztu duen eskaintza osatzeko egin beharreko dokumentazioa prestatzearen kostu osoa, eta ezin izango du inolako konpentsazio ekonomikorik eskatu esleipendun suertatzen ez bada.

7. Eskatutako dokumentazio guztia kopia soil edo kopia konpultsatuetan aurkeztuko da, erantzukizunpeko adierazpenak izan ezik. GHK-k dokumentazio originala edo Administrazioaren edo notario bidez behar bezala konpultsatu edo legeztatua entregatzeko eskatuko dio lehen sailkatuari, kopia soilak aurkeztu dituen kasuetan.

## 19 PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA

Honako lizitazioan parte hartzeko, enpresa lizitatzailerik GHKren bulegoetan eta agiri honen 19. klausulan ezarritako epean aurkeztu beharko dute gutun-azal itxi bat, geroago azalduko dugun edukia duelarik barruan, eta honako goiburua duelarik idatzita: **“BIOHONDAKINA TRATATZEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA”**.



Gutun-azal horretan adieraziko dira enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izen-abizenak eta zein izaerarekin egiten duen, eta gutun-azala sinatuta egongo da.

GUTUN-AZALaren barruan honako agiriak egongo dira:

- a) **Gutun-azalean sartutako agirien aurkibidea.**
- b) **Parte hartzeko eskabidea, I. eranskin**eko ereduari jarraituz.
- c) **Enpresariak, edo hala balegokio, ordezkariak, jarduteko ahalmena duela egiaztatzen duten agiriak**, HAKLAOko 21. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz.

Jarduteko ahalmena egiaztatzeko honakoak aurkeztuko dira:

- Parte-hartzailearen edo haren ordezkariarena nortasun agiri nazionalaren (NAN) fotokopia. Gainera, beste pertsona edo entitate baten ordezkartzan jardunez gero, notario ahalordea, gutun-azal honetan sartutako dokumentazioa kalifikatzeko prozesuan entitate honek berak askietsia izango dena.
- Lizitatzailera pertsona juridikoa bada, eratze-eskritura, edo hala balegokio aldaketa eskritura, eta identifikazio fiskalaren zenbakia, aurkeztuko ditu, Merkataritza Erregistroan behar bezala inskribatua, erregistratzea eskakizuntzat badu bere kasuan aplikatzekoa den merkataritza araudiaren arabera. Hala ez balitz, jarduteko ahalmena egiaztatzeko eratze-agiria edo eskritura, edo estatutuak edo sortze-egintza aurkeztuko ditu, bertan azaldu behar delarik zeintzuk diren jarduera arautzen duten arauak, hala balegokie, dagokien erregistro ofizialean inskribatuak.
- Espainiakoak ez diren enpresaburuek, Europar Batasuneko estatu kide bateko herritarrak badira, ezarrita dauden estatuko legediaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu behar dute, edo zinpeko aitortpen edo ziurtagiri baten bidez, halakoetan aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenei jarraituz.
- Atzerriko gainerako enpresaburuek jarduteko ahalmena egiaztatzeko Espainiak dagokion estatuan duen Diplomazia Misio Iraunkorren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde eremuan egiten duen Kotsuletxe Bulegoaren txostena.

d) **Berariazko eta erantzukizunpeko adierazpena, II. eranskin**ean azaltzen den ereduari jarraituz, ziurtatuz ez dagoela HAKLAOko 60. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekua dakarten inolako gorabeheren eraginpean, berariaz aipamena eginez artikuluko horretako 1. idatz-zatiko c) hizkiari, hau da, laneko segurtasun eta osasun arloan arau-hauste larri bategatik epai irmo bidez zigorrik jaso ez izana; baita zerga arloko eta gizarte segurantzako betebeharrak egunean dituela ere, HAKLAOko 13. eta 14. artikuluetan aurreikusten den irismenari eta formari dagokionez. .

e) **Jarduera Ekonomikoaren gaineko Zergan altan emana dagoela ziurtatzen duen frogagiria**, kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta horretarako, alta agiria aurkeztuko da, indarrean den ekitaldian egin bada, eta gainerako kasuetan, JEZaren azken ordainagiria. Kasu batean zein bestean aurkeztu beharko da erantzukizunpeko adierazpena, zerga horren baja eman ez duela ziurtatuz (**II. eranskina**).



f) Gainera, lizitatzailleak lehiaketa publikoan parte hartu ahal izateko kaudimen eskakizun hauek bete beharko ditu:

f.1) **Kaudimen tekniko eta profesionala** duela ziurtatzeko frogagiriak aurkeztu behar ditu, SPKLTBko 74.3 artikuluan ezarritakoari jarraituz:

- Kontratatistak LER 200108 kodeko hondakinak tratatzeko gaitasuna duela egiaztatzen duten administrazio baimenak dituela egiaztatzen duten frogagiriak.
- Europako Parlamentuko eta Kontseiluko 2002ko urriaren 3ko EE 1774/2002 Erregelamendua, giza kontsumora bideratuta ez dauden animalia-subproduktuetan aplikatu beharreko arau sanitarioak ezartzen dituen, eta 1528/2012 Errege Dekretua betetzen dituela egiaztatzeko dagokion administrazio entitateak emandako aldeko txostenaren frogagiriak.
- Ongarri produktuen Erregistroan inskribatu izana egiaztatzen duten agiriak (506/2013 ED eta dagokion aldaketak).
- Prozesuaren trazabilitatea bermatze aldera 865/2012 EDn substratuei buruz ezarritako baldintzak betetzeko kaudimena.
- Prozesuan sortutako lixibatuak tratatzeko gaitasuna.
- Era berean, erantzukizunpeko adierazpen bidez, **III. eranskinari** jarraituz, ziurtatuko du baldintza teknikoaren agiriko 10. klausulan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren baliabideak eskura dituela.

f.2) **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** egiaztatzeko, SPKLTBko 75. artikuluan ezarritako moduetako bat edo bat baino gehiago erabiliko dira. Kontratu honetarako lizitatzailleek gutxienez bete beharreko kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eskakizunak honakoak dira:

1. Kontratuari dagokion arloan, hau da, konpostatze eta/edo biometanizazio tratamenduen zerbitzuan, urteko negozio bolumena, itxitako azken ekitaldiari dagokionez, lizitazio iragarkian eta kontratu agirietan eskatutakoaren berdina edo handiagoa izan behar da.
2. Lanbide-arriskuen edo erantzukizun zibilaren kalte-ordainetarako aseguruia, kontratuaren xedeari egokituia, kontratatu izanaren ziurtagiria, 200.000 euroko zenbatekoarekin.

g) **Proposamena enpresen aldi baterako elkarte batek aurkeztua denean**, partaide bakoitzak aurkeztu beharko ditu obren kontratista izateko ahalmena eta kaudimena –saikapena, hala balegokio– dituela ziurtatzeko agiriak. Halakoetan, metatu egingo dira, bidezkoa den heinean, bai partaide bakoitzak egiaztatutako ezaugarriak bai aldi baterako elkarteko kideek bakarka duten saikapena, honako agirian eskakizun den kaudimen/saikapen orokorra zenbaterainokoa den jakin ahal izateko. Era berean, enpresa guztien ordezkari legalek sinatutako agiri bat aurkeztu beharko da, bertan adieraziz zein diren elkartearen izenpetzen duten enpresaburuen



izenak eta gorabeherak, esleipendun suertatuz gero aldi baterako enpresa elkarrean formalki eratzeko konpromisoa hartzen dutenak; horietako bakoitzak bertan izango duen partaidetza zehaztuz, eta kontratua indarren den bitartean administrazioaren aurrean taldeko horien guztien ordezkari izan jardungo duen pertsona izendatuz

Sailkapena bete beharreko eskakizuna den kasuetan, aldi baterako elkarrean partaide badira enpresaburu espainiarrak, Europar Batasuneko estatu kideetako herritar ez diren atzerriarrak eta Europar Batasuneko estatu kideetako herritar diren atzerriarrak, lehenengo bi multzoetako kideek beren sailkapena egiaztatu beharko dute, eta hirugarrenetakoek beren kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta gaitasun tekniko eta profesionala.

**h) Atzerriko enpresek Espainiako edozein esparrutako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren irizpenera jartzeko borondatea adierazten duten adierazpena aurkeztu beharko dute,** era horretan, kontratatua dela-eta sor daitezkeen zuzeneko edo zeharkako auziak jurisdikzio horren barne bideratzeko, dagokion atzerriko jurisdikzioari uko eginez.

Europar Batasunetik kanpoko atzerriko enpresen kasuan, gainera, Espainian bulegoa dutela frogatu beharko dute, baita beren eragiketak egiteko ahaldun edo ordezkariak izendatuta dituztela eta Merkataritza Erregistroan izena emanda daudela ere.

Enpresa horiek aurkezten duten dokumentazioa modu ofizialean egon beharko da itzulita gaztelaniara edo euskarara, hain zuzen ere, HAKLAOko 23. artikuluan xedatutakoaren arabera.

**i) Posta helbide elektronikoa,** prozedura honetatik eratorritako jakinarazpenetarako erabiliko dena, SPKLTBko 151.4 artikuluari jarraituz eta bertan aurreikusitako ondorioetarako.

Aipatutako a) eta d) hizkietan adierazitako gorabeherak egiaztatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak eta Estatuko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialak emandako ziurtagiriak aurkeztu ahal dira, baita Europar Batasuneko sailkapen ziurtagiria ere, SPKLTBko 84. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Ziurtagiri horrekin batera aurkeztu beharko da erantzukizunpeko adierazpena, eta haren bidez lizitatzailak adieraziko da ziurtagirian azaltzen diren gorabeherak ez direla aldatu.

#### **j) Proposamen ekonomikoa**

Proposamen ekonomikoa aurkezteko, lizitatzailak honako agiriko **IV. eranskinean** azaltzen den ereduari jarraitu behar diote.

Agirian esleitutako zenbatekoaren barnekotzat hartuko dira zerbitzuaren kontratazioan eta gauzapenean sortutako edo sortuko diren gastu guztiak, zehazki, honakoak:

- Kontratua formalizatzeko gastuak, hala dagokionean.

- Kontratutako prestazioa betetzeko esleipendunak egin beharreko gastuak, horien barnean, gastu orokorrak, finantzarioak, aseguru gastuak, tasak, fidantzak, saioak, garraio eta desplazamenduak, bere kontrako langile teknikari eta laguntzaileen ordainsari eta dietak, eta agiri honetan aurreikusitako gainerakoak.
- Zerga oro, BEZa barne, eta kontratuak iraun bitartean ezarriak edo aldatuak izan daitezkeen guztiak.

GHK-k egiaztatu ahal izango du, kontratuaren esleipenaren aurretik eta ondoren, eta kontratua garatu bitartean, proposamenaren edukiaren egiazkotasuna. Enpresak aurkeztutako datuen eta gorabeheren faltsutasuna kontratua suntsiarazteko arrazoia izan daiteke, halakorik balego, kontratistari egotz dakioken ez-betetzeagatik, eta eraturako behin betiko bermea galtzea ekarriko luke horrek.

Proposamena enpresa elkarte batek aurkezten duenean, partaide guztiek sinatu beharko dute proposamena.

Lizitatuak ez badu aurkeztu esleipen irizpideekin zerikusia duen dokumentazioa, edo hor bildu ez baditu aurreko paragrafoetan bete beharrezkotzat ezarritako eskakizun guztiak, lizitatuak proposamena ez da baloratuko irizpide jakin horri dagokionez.

## 20 AURKEZTUTAKO ESKAINTZAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Kontratuaren esleipenerako oinarria izango den eskaintzen baloraziorako irizpidea honakoa izango da:

- **Automatikoki ebaluatzeko den irizpidea:**

### **PROPOSAMEN EKONOMIKOA –100 PUNTURAINO**

Kontuan hartuta garraioaren kostuak GHKren kontrakoak direla, eta errepide bidez distantzia handiko garraioa saihestea ingurumen jasangarritasunerako irizpide bat dela, garraiatutako biohondakinean komenigarria ez den hartzidura saihestearekin batera, biohondakina tratatzeko zerbitzuaren prezioari buruzko proposamen ekonomikoa baloratzeko honako formula erabiliko da:

Onartutako proposamenei dagokien eskaintza ekonomikoen puntuazioa kalkulatzeko, eskaintako prezioaren balorazioa Distantzia Faktorearekin biderkatuko da.

Puntuazioa = prezioaren puntuazioa x Distantzia Faktorea (K)

Prezioaren puntuazioa interpolazio lineal baten bidez zehaztuko da, P1 eta P2 bi puntuak lotzen dituen zuzenaren arabera, non:

P1 = Gutxieneko prezioa den, 100 puntuko puntuazioa



P2 = Lizitazioaren oinarritzko prezioa den (36 euro tonako), 0 puntuko puntuazioa

Eskaintzetako "prezio" osagaia baloratzeko, kontuan hartuko da, soil-soilik, bakoitzak jarritako tratamendu zerbitzuaren prezioa (BEZik gabe).

Hala, prezioan eskuratutako puntuak biderkatu/zuzendu egingo dira Distantzia Faktorearekin, non K:

- K= 1 den D (distantzia) 80 kilometrotik beherakoa bada.
- K= 0,75 den, D 80 kilometro edo gehiago bada, baina 150 km-tik behera.
- K= 0,50 den, D 150 kilometro edo gehiago bada, baina 200 km-tik behera.
- K= 0,25 den, D 200 kilometro edo gehiago bada, baina 350 km-tik behera.
- K= 0,15 den, D 350 kilometro edo gehiago bada.

Errepide bidezko garraiorako distantzia errealak erabiliko dira, eta errepide mapan oinarrituta neurtuko dira, Tolosako udalerria erreferentziatzen hartuta, honako agiriaren ondorio guztietarako, Gipuzkoako zentro geografikotzat har baitaiteke.

**Lizitazioaren oinarritzko prezioa gainditzen duen eskaintzarik ez da onartuko, hau da, 36 eurotik gorakorik.**

Merkatzea da (M) lizitazioaren oinarritzko prezioaren (36 euro) eta eskaintza ekonomikoaren arteko kenketa, zati lizitazioaren oinarritzko prezioa.


## 21 PROPOSAMEN NEURRIZ KANPOKOAK EDO AUSARTEGIAK

1. Merkatze ausartegizat edo neurritz kanpokotzat joko da, onartutako oinarritzko proposamen guztien merkatze-portzentajeen batez besteko aritmetikoa gutxienez %20an gainditzen duen proposamen ororen jaitsiera.
2. Lizitzaile bakoitzaren proposamena honako eragiketaren bidez kalkulatu da: tratatu beharreko biohondakin kopuru zenbatetsia (5.500 t) bider lizitzaileek eskaintako prezio unitarioa.
3. Kontratu honen xedearekin alderatuta ausartegia edo neurritz kanpokoa den eskaintzarik jasoz gero, Kontratazio Mahaiak, baztertu aurretik, proposamenaren egileari idatziz eskatuko dio eskaintzaren osaerari buruz egokitzen jotako azalpenak emateko, eta eskaintzaren osaera aztertuko du eskuratu dituen azalpenak aintzat hartuta. Horretarako, lizitzaileei hiru eguneko (3) epea emango die azalpen horien eskaera jasotzen den egunetik zenbatuta.

Kontratazio Mahaiak aintzat hartu ahal izango ditu lizitzaileak emandako arrazoibide objektiboak, esaterako, hautaturiko irtenbide teknikoak, edo kontratua gauzatzeko ezohiko baldintza abantailatsuak izatea.



Nolanahi ere, merkeegiak diren eskaintzak aurkeztuz gero, GHK-k baztertu ahal izango ditu, betiere lizitatzailleak aurkeztutako arrazoibidea aintzat hartuta.



## 22 KONTRATAZIO MAHAIA

GHK, SAUren Kontratazio Mahaia jardungo du kontratazio mahaiaren zereginetan.

## 23 ESKAINTZAK SAILKATZEA ETA KONTRATUA ESLEITZEA

### 23.1 Eskaintzen sailkapena.

GHK-ko teknikariek garaiz eta behar bezala kalifikatuko dituzte aurkeztutako dokumentuak, eta zuzen daitezkeen akats zein ez-egiteak antzematen badituzte, gehienez ere hiru (3) laneguneko epea emango diote lizitatzailleari, zuzen ditzan.

GHK-ko teknikariek dagokion Txosten Teknikoa idatziko dute; eta horretan, bidalitako gonbidapenak, jasotako eskaintzak, horiek onartu edo ukatzeko arrazoiak, eta egindako negoziazioak bilduko dituzte. Txosten hori kontratazio mahaiari helaraziko zaio.

Kontratazio mahaiak, bere proposamena egin baino lehen, kontratazio organoari helaraziko dion eskaintza sailkapenerako beharrezkoak diren txosten tekniko eta juridikoak eskatu beharko ditu.

Kontratazio organoak sailkatu egingo ditu aurkeztutako proposamenak, puntuazio altuena duenetik gutxien duenera, eta kontratazio mahaiak egindako esleipen proposamena kontuan hartuta, ekonomikoki onuragarriena den proposamenari esleituko dio kontratua.

Kontratazio organoak **ekonomikoki eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzailleari eskatuko dio** aurkez dezala, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita **hamar (10) laneguneko epean**, jarraian zehaztuko den dokumentazioa:

- esleipen prezioaren %5aren behin betiko bermea ezarri izanaren frogagiria, eta
- zerga eta Gizarte Segurantzako betebeharretan egunean dagoela ziurtatzen duen dokumentazioa; edo bestela, kontratazio organoari dokumentazio hori zuzenean egiaztatzeko baimena ematea. Dagozkion ziurtagiriak bide elektronikoko, informatiko edo telematikoko erabilia egin ahal izango dira, agirietan besterik zehaztu ezean.

Eskatutako agiriak adierazitako epe horretan aurkezten ez badira, lizitatzailleak eskaintza erretiratu egin duela ulertuko da. Hori gertatzen bada, puntuazioaren arabera antolatutako eskaintzen zerrenda hartu, eta haren ondoko lizitatzailleari eskatuko zaio lehen aipatutako agiri horiek aurkez ditzala.

### 23.2 Esleipena.

Kontratazio organoak dokumentazioa jaso eta bost (5) laneguneko epean esleitu beharko du kontratua.

Esleipena arrazoitu egin beharko da, hautagai edo lizitatzailerik jakinaraziko zale eta aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da jakinarazpena. Bereziki, posta elektronikoa bidez egin daiteke, lizitatzailerik edo hautagaiek proposamenak aurkezterakoan adierazitako helbidera bidaliz, Herriarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa Izateari buruzko 2007ko ekainaren 22ko 11/2007 Legearen 28. artikuluan ezarritako baldintzetan. Hala ere, jakinarazpena errefusatutzat jotzeko epea bost (5) egunekoa izango da; eta errefusatze horrek 1992ko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.4 artikuluan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Hautatutako lizitatzailerik esleipena egiteko baldintzak betetzen ez dituela-eta, kontratua esleitu ezin denean, lizitazio berri bat abian jarri aurretik, Administrazio Kontseiluak esleipen berri bat egin ahal izango du horren ondoren sailkatuta geratu den lizitatzailerik (edo lizitatzailerik), horien eskaintzen arabera ordenan, baldin eta hori posible bada, eta esleipendun berriak esleipenarekin ados dagoela adierazi badu. Kasu horretan, esleipendun berriari hamar (10) laneguneko epea emango zaio baldintza agiri honetan 23.1 klausulan xedatutako dokumentazioa aurkezteko.

## 24 KONTRATUA FORMALIZATZEA ETA GASTUAK

Esleipenduna GHKn agertu beharko da kontratua administrazio dokumentu batean formalizatzeko, esleipenaren jakinarazpenaren adierazitako epean. Kontratua formalizatu aurretik, esleipendunak honako agiriak aurkeztu beharko ditu:

- a) Esleipenduna aldi baterako enpresa elkarte bada, kontratua formalizatzeko emandako epean egiaztatu beharko du aldi baterako enpresa elkarte legez eratu duela, eskritura publikoaren eta esleitutako IFZren bidez. Aldi baterako enpresa elkartearen iraupena kontratuaren iraupenarekin bat etorriko da. Taldeko enpresaburuak administrazioaren aurrean solidarioki behartuta geratuko dira, eta ordezkari edo ahalduz bakar bat izendatuko dute, kontratua amaitu bitartean hortik sortzen diren eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko ahalmen askietsiarekin, ahalorde mankomunatuak emateko aukeraren galerarik gabe, diru zenbateko esanguratsuen kobrantzak eta ordainketak egiteko.
- b) Jarduera Ekonomikoaren Zergaren matrikulan baja eman ez izanaren erantzukizunpeko adierazpena.
- c) Aseguru polizaren ordainagiri eguneratuaren kopia erkatua, 19.f.2.2. klausulan ezarritakoaren arabera.

Kontratua administrazio dokumentu baten bidez formalizatuko da, zeina estu-estu lotuta egongo den lizitazioaren baldintzekin. Dokumentu hori titulu askietsia izango da erregistro publiko orotan sartzeko. Halere, kontratistak kontratua eskritura publikoan ezartzea eska dezake, eta eskritura formalizatzearen gastuak bere kontura izango dira.

Kontratua sinatzen den ekitaldi berean, kontratuaz gain, esleipendunak administrazio baldintza berezien agiri hau, baldintza teknikoaren agiria eta aurkeztutako eskaintza ere sinatuko ditu, eta horrela jasotako utziko du horiek ezagutzen dituela eta ados dagoela.



*(Handwritten signature and stamp)*  
Itzazkarriak

SPKLTBko 155. artikulua babestean, kontratua sinatzeari uko egiten bazaio edo prozedura horretan atzera egiten bada, lizitazioa dela eta lizitatuak ordaindu behar izan dituzten gastuengatik kalte-ordainak zehaztuko ditu GHK-k, haien entzunaldia eman eta gastuak justifikatu ondoren.

Kontratatari egoztekoak diren arrazoiak direla-eta, kontratua sinatzen ez bada, hori indargabetzea erabaki dezake GHK-k, interesatuari entzunaldia eman ondoren; eta hori gertatzen bada, kalte eta galeren kalte-ordainak eman beharko ditu interesatuak.

### III. KAPITULUA- IZAERA, ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIO ESKUDUNA

#### 25 KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

Kontratu honek izaera pribatua du, 2011ko azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegileak, Sektore Publikoko Kontratuari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak (SPKLTB) 20.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, eta administrazio baldintza berezietan agiri honetan eta haren eranskinetan, eta baldintza teknikoaren agirian zein gainerako kontratu agirietan xedatutakoak arautuko du, 8. klausulan xedatutako baldintzetan.

Prestakuntzari, esleipenari, eta ondorio zein indargabetzeari dagokionez, honako baldintza ekonomiko-administratiboen agiriak eta baldintza teknikoaren agiriak eta GHK-ko Barne Kontratazio Jarraibideak arautuko dute kontratua, eta horietan aurreikusi gabekoak ebazteko, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

Halaber, Sektore Publikoko Kontratazioari buruzko Legearen testu bategina (SPKLTB) eta Herri Administrazioetako Kontratuen Legeko Araudi Orokorra (HAKLAO) ere aplikatzekoak izango dira, agiri honek araudi horiei zuzenean erreferentzia egiten dien gaitan.

Kontratuaren eta itundutako gaiaren gauzapenean aplikatzekoak izan daitezkeen gainerako kontratu agiriaren zeinahi baldintza ez ezagutzeak ez du esleipenduna salbuetsiko hura betetzeko betebeharririk.

#### 26 DATU PERTSONALAK BABESTEA

Kontratazio honek datu pertsonaletarako sarbidea ekarriko badu, kontratatariak SPKLTBko hogeita seigarren xedapen gehigarritik eratorritako betebeharrak bete beharko ditu, datu pertsonalen babesari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari, eta hori garatzen duen araudiari dagokionez.

## 27 JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio ordena zibila izango da kontratuaren prestakuntzari, esleipenari, ondorioei, betetzeari edo indargabetzeari buruz aldean artean gerta litezkeen desadostasunak erabakitzekeo eskumenduna.

**ADMINISTRAZIO KONTSEILUAK**

**2015 EKA. 11**

..... (e)an onartua  
Aprobado por Consejo de Administración.

Hernani,

2015 EKA. 12  
JUN.



**GHK**  
Gipuzkoako  
Hondakinen  
Kudeaketa

Idazkaria





I. **ERANSKINA-PROPOSAMENA ERREGISTROAN ENTREGATZEKO EREDUA**

..... jaun/andreak, ..... zenbakidun nortasun agiria duenak, bere izenean edo ..... zenbakidun IFZ, ..... helbidea, ..... telefono zenbakia, ..... faxa eta ..... helbide elektronikoa duen ..... enpresaren izenean,

**ADIERAZTEN DU:**

Gaurko eguneko..... (\*) (e)tan, bi gutun-azal entregatu dituela, **“BIOHONDAKINA TRATATZEKO ZERBITZUA”** kontratatzeke aurkezten duen proposamena osatzen dutenak.

Hernanin, .....(e)ko.....(a)ren .....(e)(a)n

Aurkezlearen sinadura

(\*) Erregistroko arduradunak bete beharreko hutsunea

**GIPUZKOAKO HONDAKINEN KUDEAKETAKO ERREGISTRO NAGUSIA**

## II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

..... jaun/andereak, adinez nagusiak,  
..... zenbakidun nortasun agiria eta  
..... helbidea duenak (..... telefonoa,  
..... faxa, ..... helbide elektronikoa), norberaren  
izenean edo ..... merkataritza sozietatearen ordezkari gisa  
(..... IFZ zenbakia, .....  
helbidean egoitza, ..... telefono zenbakia, ..... faxa eta  
..... helbide elektronikoa), adierazten du bai berak bai  
ordezten duen enpresak gaitasuna dutela Administrazio Publikoarekin kontratatzeko,  
jarduteko gaitasun osoa dutenez, ez baitago Sektore Publikoko Kontraten Legeko testu  
bateginak 60. artikuluan xedatutako kasuren batean. Zehazki, adierazten du ez duela  
zigor irmorik jaso segurtasunaren eta laneko osasunaren esparruan arau hauste oso  
larri bat egiteagatik, hau da, ez duela SPKLTBko testu bategineko 60.1 artikuluan  
xedatutako baldintza betetzen.

Halaber, adierazten du:

- Egunean dagoela indarrean dauden xedapenek zerga alorrean eta Gizarte Segurantzaren ezarritako betebeharretan, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorrak 13. eta 14. artikuluetan jasotako hedaduran (2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua).
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda dagoela kontratuaren xedeari dagokion epigrafean, eta ez duela bajarik eman zerga horren matrikulan.

Hernanin, .....(e)ko.....(a)ren .....(e)(a)n

Sinadura




III. ERANSKINA- BALIABIDEEN ADIERAZPEN EREDUA

..... jaun/andereak, adinez nagusiak,  
..... zenbakidun nortasun agiria eta  
..... helbidea duenak (..... telefonoa,  
..... faxa, ..... helbide elektronikoa), norberaren  
izenean edo ..... merkataritza sozietatearen ordezkari gisa  
(..... IFZ zenbakia, .....  
helbidean egoitza, ..... telefono zenbakia, ..... faxa eta  
..... helbide elektronikoa), adierazten du bai berak bai  
ordezten duen enpresak **“BIOHONDAKINA TRATATZEKO ZERBITZUA”** gauzatzeko  
lanak egiteko baldintza teknikoen agiriko 10. klausulan ezarritakoa betetzeko  
beharrezkoak diren baliabide mekaniko eta giza baliabideak eskura izango dituela.

Hernanin, .....(e)ko.....(a)ren .....(e)(a)n

Sinadura



**IV. ERANSKINA- PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA**

..... jaun/andereak, helbidea  
..... duenak, ..... zenbakidun  
nortasun agiria eta ..... telefonoa eta ..... helbide  
elektronikoa, gaitasun juridikoaren edo jarduteko gaitasunaren erabateko jabetza  
duela, norberaren izenean (edo ..... (r)en ordezkari gisa,  
(..... NAN edo IFZ duena [persona fisikoa edo juridikoa izan] eta  
..... helbidea, GHKren eskutik gonbidapena jaso  
ondoren **“BIOHONDAKINA TRATATZEKO ZERBITZUA”** kontratatzeko publizitate  
bidezko prozedura negoziatuko lizitazioan parte hartzeko,

**ADIERAZTEN DU:**

1º) Kontratu hori gauzatzeko konpromisoa hartzen duela, jarraian adierazitako prezio unitarioan, BEZik gabe:

<b>LIZITAZIOAREN OINARRIA (BEZik gabe)</b>
_____ €/ tratatutako biohondakin tonako

Horrez gain, dagokion BEZa fakturatuko da.

Prezio horren barnekotzat jotzen dira kontzeptu guztiak, hala nola zergak, gastuak, tasak eta arielak, edozein zerga esparrutakoak, eta kontratistaren mozkin industriala.

2º) Kontratu hau arautzen duten baldintza ekonomiko-administratiboen agiria eta baldintza teknikoen agiria ezagutzen dituela, eta horiek erabat onartu eta ontzat hartzen dituela.

3º) Ordezkatzen duen enpresak betetzen dituela zerga esparruan eta Gizarte Segurantzakoan indarrean dagoen araudiak xedatutako baldintza eta obligazio guztiak.

Hernanin, .....(e)ko.....(a)ren .....(e)(a)n

Sinadura





**V.ERANSKINA- BERME EREDUA**

.....entitateak,  
IFZ duenak eta ..... helbidea duenak, egintza honetan parte hartzeko beharrezko ahala duelarik, agiri honetako beheko aldeak ahalorde askiestuen arabera, ..... IFZ duen ..... erakundea **BERMATZEN** du Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU sozietatearen aurrean, ..... zenbatekoan, **BIOHONDAKINA TRATATZEKO ZERBITZUA** gauzatzeko kontratutik eratorritako betebeharrei erantzuteko.

Entitate bermatzaileak bere erantzukizunpean adierazten du urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, Herri Administrazioen Kontratuen buruzko Legearen Araudi Orokorra onartzen duenak, 56.2 artikuluan xedatutako baldintzak betetzen dituela. Berme hau solidarioki eman zaio zergadun nagusiari, eta eskusio, ordena eta zatiketa eskubideari espresuki uko egiten dio. Halaber, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAU sozietateak egindako lehen errekerimenduaren aurrean ordaintzeko konpromisoa hartzen du.

Berme hau indarrean egongo da, harik eta Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa SAUK hori ezeztu edo itzultzea baimendu arte.

Hernanin, .....(e)ko.....(a)ren .....(e)(a)n

Izpta.: .....

11 OCT 1962

